

# Laneko zuzenbidearen krisia eta globalizazioa

José Manuel Hernández



MANU  
ROBLES-ARANGIZ  
INSTITUTUA

---

# Aurkibidea

<b>Aurkezpena</b> .....	3
<i>Aurrekari historikoak</i> .....	4
<i>Frankismotik PP-ren erregimenera eta moneta bakarrera: 1976-2002: 25 urte itun sozialaren eskutik</i> .....	6
<b>I. 1976ko Lan-harremanen Legetik 1980ko Langileen Estatutura</b> .....	8
<b>II. 1982ko enpleguari buruzko Akordio Nazionaletik 1992ko dekretutzarrera</b> .....	13
<b>III. 1994 eta 1997ko lan-erreformak: lan-merkatua gero eta malguagoa</b> .....	15
<i>1994ko lan-erreforma</i> .....	15
<i>1997ko lan-erreforma: zabor-kontratuetatik zabor-iraizpenera</i> .....	16
<i>PP-ren enplegu-plana: enplegua denontzat, baina behin-behinekoa</i> .....	18
<b>IV. 39/99 legetik 2002ko dekretutzarrera</b> .....	20
<i>39/99 legea, lana eta familia elkarrekin uztartzeari buruzkoa</i> .....	20
<i>2002ko apirileko dekretutzarretik 2002ko abenduko dekretutzarrera eta ekainaren 20ko greba orokorrera</i> .....	23
<b>Ondorio gisara</b> .....	26

Edizioa      Manu Robles-Arangiz Institutua  
Barrainkua, 13  
48009 BILBO  
[www.mrafundazioa.org](http://www.mrafundazioa.org)  
Inprimaketa      Bilbo Graf (Bilbo)



## Bixente Arriola ELAko azterketa bulegoa

Artikulu honek aztertzen du lan-araudiak eta laneko zuzenbideak estatu espainiarrean 1976-2002 epean izan duten bilakaera, betiere, boterearen aurkako ikuspegitik begiratuta.

Bilakaera horren etapa nagusiak aztertu ditu egileak: frankismoaren amaierako legedia, lehenbiziko legedia demokratikoa, laneko legeen eta gizarte segurantzaren aldaketak (Langileen Estatutua eta Enpleguari buruzko Oinarrizko Legea). Hemen dituzue, bada, 1984ko erreforma (behin-behineko kontratazioa zio jakinik gabe), 1994koa (lan-merkatuaren desarautzea, lanaldiaren eta irazpen kolektiboak malgutzea, ABLEen hasiera), 1997koa (desarautze gehiago, trebakuntza-kontratua, 'behin betiko kontratazioa sustatzeko' zeritzon kontratua, irazpena are merkeago jartzen zuena) eta 2002koa (tramitazio-soldatak kendu zituen eta langabezia-presazioak aldatu zituen dekretutzarra, baita irazpena gehiago merkatu ere). Etxetik kanpoko Lana eta Familiako Bizitza Elkarrekin Uztartzeko Legeari ere kritika egiten dio, atal monografiko batean.

Laneko zuzenbidearen eraispena nola egin den erakusten digu artikuluaren egileak, ideologia neoliberalak nola aplikatu izan den disimulu eta errukirik gabe.

Boterearen aurkako posizioetatik egindakoa da azterketa, eta egileak gogor kritikatzeko estatu espainiarreko sindikatu nagusiak, sistemara "egokitu eta instituzionalizatu" egin direlako: instituzio gisara aritzen dira (langabeziaren kudeaketan parte hartzen dute, FORCEMen...), eta bai 2002ko erreformak bai aurrekoak legitimatu egin izan dituzte.

Ez dira ageri lan honetan, bestalde, ekainaren 19ko greba, edo Moncloako itunen aurka izan ziren sindikatuen jarrerak, estatu espainiarreko ikuspegitik egin baitago. Negoziazio kolektiboaren zentralizazioari egiten zaizkion kritikak ere ez ditu aipatzen lanak.

## Laneko zuzenbidearen krisia eta globalizazioa

1977ko Moncloako Itunetatik 2002ko dekretutzarrerako bidea:  
behin-behinekotasuna, langabezia eta  
bazterketa ekarri dituzten 25 urte

José Manuel Hernández de la Fuente

### *Aurrekari historikoak*

Erabateko aldaketa izan du estatu espainiarrean lan-harremanak arautzeko alor juridikoak azkeneko bi hamarkada hauetan. Ondorioa, hauxe: lan-merkatu malgua, desarautua eta izugarritzko behin-behinekotasun tasak dituen, duela urte batzuk pentsatzerik ere ez zegoenak.

Begi-bistakoak dira, izan ere, laneko arautze juridiko positiboan egin diren aldakuntzak. Zuzenbide sozialak aldaketa ugari izan ditu, alor ekonomikoan gobernuak -bai sozialdemokrata kutsukoek, bai egungo neoliberalak- aplikatutako politikak direla medio. Aldakuntza horien helburu nagusia zen enpresen lehiakortasuna eta produktibitatea handitzea. Horretarako, baina, ezinbestekoa zen produkzio-kostuak murriztea, lana merkatzea, alegia. Behin-behineko kontratazioa, batetik, lan-erregulazioa aldatzea kontratuaren iraunaldian eta irazpena (despidoa) merkatzea izan ziren helburu hori lortzeko tresnak. Arau ugarik errazten dute langileen irazpena; hori dela eta, gero eta errazagoa eta merkeagoa zaie enpresaburuei langileak kaleratzea.

---

\* “Rebelión” aldizkarian plazaratu zen artikulua hau, 2004ko martxoaren 10ean. Robles Arangiz Institutuak eskerrik beroenak eman nahi dizkie aldizkariaren zuzendaritzari eta artikulua egileari gure txosten-bilduma honetan argitaratzen uzteagatik.

José Manuel Hernández Abokatuen Elkargo Libreko (ALA) partaidea da, baita Gizarte Aholkularitza eta Azterketa Zentrokoa ere (CAES).

---

---

Gizarte-legediak trantsizio politikotik gaurdaino izan duen bila-kaerak garbi erakusten du lan-malgutasuna aise nagusitu dela enpresen kudeaketan. Hainbat lege-arau erabili dira horretarako, eta horiek bihurtu dira lan-harremanen ardatz.

Kapitalaren eta lanaren arteko harreman orekagabeko horretan, gizarte-legediaren alorrean atzera egiteak hautsi egiten du laneko zuzenbidearen babesle-lana. Haustura horren onuraduna, berriz, merkatu-ekonomia izan da, araudi-aldaketaren benetako eragilea alegia.

Langileen banakako eskubideetan eta kolektiboetan nabaritzen da laneko zuzenbidearen atzera egite hori.

Lan-harremanak arautzen dituen esparru juridikoak bereganatu eta bedeinkatu egin du behin-behinekotasuna izatea oinarritzko irizpidea. Hortaz, estatu espainiarreko biztanleria aktiboaren ia erdiak dauka koloka egonkortasun soziala. Jakina, izugarritzko ezegonkortasuna eragiten dio horrek jende asko eta askori.

Zuzenbide-aditu eta -ikertzaile gehienek diotenez, jabetza-eskubidearen harremanak dira Zuzenbidearen muina. Laneko Zuzenbidea, berriz, Iraultza Industrialaren garaian sendotu zen Zuzenbidearen alor autonomo gisara, hau da, kapitalismoaren has-tapenetan.

Lehen Mundu Gerra (1914-1918) eta gero, hainbat gertakari historiko garrantzitsu izan zen; besteak beste, mugimendu iraultzaileak indartzea. Errusiako Iraultza (1917) izan zen horietatik aipagarriena. Estatu-planifikazio sozialista ezarri zuen Iraultzak SESBn. Neurri batean bederen, sistema sozioekonomiko kapitalistaren ifrentzua zen SESBekoa, eta gizon-emakume libre eta berdinez osatutako gizartea aldarrikatzen zuen. Alabaina, gizarte hartako alderdi formaletan bakarrik ageri zen berdintasuna eta askatasuna, ez benetako bizitzan.

Bigarren Mundu Gerraren ostean, berriz, keynesianismoa izan zen garapen ekonomikorako irizpide nagusia. Kapitalismoaren ikuspegi berezia zuen doktrina ekonomiko hark. Keynesianismoa ez zetorren bat ekonomia liberalaren oinarritzko printzipioetako batekin (lehenbizi garapen ekonomikoa bultzatu, ondoren enplegua sortu eta aberastasuna banatzeko). Eskaintzaren eta eskariaren

arteko berdintasun-printzipioa hautsi egin zuen keynesianismoak, eta eskariaren aldera eraman zuen balantza. Enplegu osoa eta errenta egokiro banatzea ziren -keynesiarren iritziz- garapen ekonomikoaren abiapuntuak.

Hainbat aldaketaren eskutik sortu zen keynesiasmoa: produkzio masiboa ekarri zuten eraldakuntza teknikoak eta produktiboak; langileria eragile politiko gisara eratzea eta beste irizpide sozial bat aldarrikatzea eta ezkerak faxismoaren aurkako borrokan izan zuen garrantzi izugarria. Horrek guztiak agintzen zuen langileria sistemaren egonkortasun-faktore bihurtu behar zela, baita langileen erakundeak aintzat hartzea ere. Halaber, langileen aurkako politika ekonomiko oso oldarkorra ez egitea ere eskatzen zuen egoera berriak.

Giro horretan sortu zen, bada, keynesianismoa, teoria liberalen aurka betiere. Emaitza: garapen ekonomiko handia eta enplegu ia osoa herrialde garatuetan. 1973tik aurrera, ordea, krisi larriak jo zuen teoria keynesiar guztia eta kapitalismoaren beste fase bat hasi zen. Teoria liberalen garai heldu zen, alor guztietara heldu ere: ekonomikora, politikora eta juridikora.

Langileen erakundeek eta sindikatuek indar politiko eta sozial handia bereganatua zutenez, nabarmen ugaldtu eta gogortu ziren langileen borrokek. Kapitalismoak, horrenbestez, egoera berrira egokitu beharra izan zuen. Teoria keynesiarrak puri-purian zeudela sortu zen Laneko Zuzenbidea desberdintasun sozialak orekatzeko botere gisara. Zuzenbide autonomoa zen, langileen zapalkuntzari nolabaiteko mugak jartzen zizkiona, produkzio-bitartekoaren jabeen arau batzuk ezartzen zizkiena.

***Frankismotik PP-ren erregimenera eta moneta bakarrera:  
1976-2002: 25 urte itun sozialaren eskutik***

Estatu espainiarrean, hainbat hobekuntza lortu zituen herri-mobilizazioak eta borrokek Lan Araudian, negoziazio kolektiboaren esparrua areagotu, “*de facto*” lortu zuen askatasun sindikala eta demokrazia industrialeko hainbat esperientzia gauzatu zituen, frankismo garaian legez kanpo egon ondoren klase sindikatuak eta langile alderdiak. Artean sindikatuak legez kanpo zeudela ere, lortu

---

---

zen lan-kondizioak negoziatzea eta botere ekonomikoek eta politikoek ezarri nahi zituzten doitze-politikak geldiaraztea.

Harrezkerotik, ordea, gogotik aldatu zuten Laneko Zuzenbidearen araudia sindikatu nagusiek, patronalak eta gobernuek elkarrekin sinatutako itunek -Monkloako Itunak (1977ko urria), 1997ko lan-erreforma (UGT eta CCOOek sinatua patronalarekin), 2002ko apirilako Dekretutzarra (PPko gobernuaren eta sindikatuen arteko gorabeherak eta ekainaren 20ko greba orokorra eragin zituen), 2002ko abenduko dekretutzarra...-.

Itun horietatik, azpimarratzekoak dira 1980ko Konfederazio arteko Esparru Ituna (AMI), UGTk eta CEOEk izenpetua (gerora USOk ere sinatu zuen); 1981eko Enpleguari buruzko Itun Nazionala (ANE), CCOOk, UGTk eta CEOEk sinatua; 1983ko Konfederazio arteko Ituna (AI, UGTk, CCOOk, CEOEk eta CEPYMEk izenpetua); 1984ko urriko Itun Ekonomiko eta Soziala (AES, PSOeko gobernuak, CEOEk, CEPYMEk eta UGTk sinatua); 1994ko Lan Erreforma (PSOEk bultzatua eta PPK babestua); 1997ko Lan Erreforma (CEOEk, CEPYMEk, UGTk eta CCOOk izenpetua, PSOE eta PPren babes parlamentarioarekin), eta, azkenik, aipatutako 2002ko abenduko Dekretutzarrean sindikatuek eta patronalak sinatutakoa. Azken horrek hobetu egiten zituen 2002ko apirilako Dekretuaren hainbat atal, baina, hala eta guztiz, irazpena merkatzaren jarraitzeko baliatu zuten.

Itun horiek guztiak zirela eta, hainbat arau egin ziren kontratazioaz, desenplegu- pentsio- eta gizarte-segurantza prestazioen murrizketaz... helburu honekin: Laneko Zuzenbidearen arauak kapitalismoaren fase berrira (globalizazioa) egokitzea.

Lan eta gizarte-harremanetako alderdi ahulenaren eskubideak babesten zituzten laneko araudi guztiak aldatu eta malgu bihurtu ziren, enpresaburuek nahierara erabiltzeko modukoak, lan-indarra merkantzia moldakor gisara erabil dezaten (bai lan-merkatura sartzeko bai handik irteteko, eta, jakina, sartu eta irten bitartean). Enpresaburuek bakarrik kontrolatzen dute, noski, araudiaren erabilerara.

Lan-harremanak erregulatzen dituzten lege-araudiak botere ekonomikoaren mesederako egiten dira. Horregatik, behin-behineko

lan-harremanak bultzatzen dituzte, langabeziarekin txandakatzen direnak. Hala, bada, langile asko eta asko etengabeko ezegonkortasun-egoeran uzten dituzte.

## I.

### 1976KO LAN-HARREMANEN LEGETIK 1980KO LANGILEEN ESTATUTURA

1970eko hamarkadaren amaieratik 1980koaren erdialdera arte hainbat dekretu, lege, enplegu-politika, oinarrizko akordio, itun nazional eta abar sinatu ziren. Aro horren amaieran, lan-merkatuaren antolakuntza ikuspegi erabat liberaletatik egiten zen. Lan-indarra merkantzia bihurtzen eta malgutzen zuen ordena ekonomiko eta soziala bermatu eta sendotzeko egiten ziren legeak.

Araudi berri horien bidez erantzun nahi izan zitzairen orduko gizaritearen arazo berriei (langabezia, inflazio-tasa handiak, aurreko erregimenaren krisia...).

1970eko hamarkadaren amaieran krisialdi sakonean murgildu zen frankismo-garaiko lan-harreman eredu eta gatazka sozial gogorak izan ziren. Langileriak bultzatu zuen -bereziki- aldaketa sozial eta politikorako borroka.

Nazioartekoan krisi ekonomiko larria egon arren, boterea ez zen gauza izan soldatak jaisteko. Alderantziz: produktibitatea baino gehiago igo ziren soldatak, presio gogorra egin baitzuten langileek. Enpresaburuek, berriz, langileak kaleratzeari eta lan-kostuak prezioei gehitzeari ekin zioten. Inflazioa hazi egin zen.

Klase-borroka presioak eta gogortzeak lurperatu egin zuten frankismo-garaiko eredu, lanpostuen egonkortasunean eta soldata baxuetan oinarritua.

Mobilizazioaren bidez plazaratu zen, beraz, lan-munduak zeukan babes-premia, eta ez arauen bidez. Araudia, egon bazegoen, baina kontraesan bezalako lan-araudi juridikoa zen. Izan ere, langileen oinarrizko eskubideak galarazi edo mugatzen zituen arren (greba eskubidea eta lanpostu egonkorra izateko eskubidea, adibidez), langileen indarrak behartu egin zuen boterea eskubide horiek onartzera.

---



Esan dugunaren adibide ditugu bi arau hauek: Gatazka Kolektiboan Araua (1975) eta Lan Harremanen Legea (1976ko apirila).

Arau horiek bidea zabalik uzten zieten langileei oinarrizko eskubideez baliatzeko. Eskubide horietako batzuek askatasunarekin zuten zerikusia (greba egiteko eskubidea), eta beste batzuek, berriz, berdintasunarekin: lan-harremanen desoreka zuzentzen zuten, lanpostuaren iraunkortasuna edo behin betikotasuna ziurtatzen baitzuten (behin betiko kontratua lehenesten zuten behin-behinkoaren aldean, eta irazpen librea ia ezinezkoa zen).

1976ko Lan Harremanen Legeak ez zuen luzaro iraun. Izan ere, handik urtebetera izenpetu ziren Moncloako itunak; bitartean, berriz, patronalak presioa egin zion Suarezen gobernuari (frankista zen artean). Inbertsio-greba eta armadaren mehatxuak izan ziren patronalaren presiobideak, eta horiek zirela medio baliogabetu zen Lan Harremanen Legearen (LHL) funtsezko artikulua bat, 35.a (irazpenei buruzkoa). Ondorioz, enpresaburuek ez zeukaten jada iraitzita langileak berriro hartzeko obligaziorik; bestalde, jaitsi egin ziren irazpenaren kalte-ordainak, legea indarrean jarri eta handik sei hilabetera. Sasoi hartan (1970eko hamarkadaren amaiera) handia zen langabezia-tasa; inflazioa, berriz, % 26ra ere igo zen batzuetan (1977an). Urte hartatik aurrera hasi zen jaisten.

Aurreko garaiko hazkunde iraunkorra amaitu ostean, ekonomia-aren atzeraldia iritsi zen. Bai botere berriak bai ezkerreko alderdiek (PSOE, PCE...) nolabaiteko diskurtso keynesiarri eutsi zioten (Moncloako Itunetan islatzen da diskurtso hori).

Herri-erakundeen garai hartako indarra ikusirik, ez zen erraza haustura politikoko proiektuak bazterrera uztea eta bizkarra ematea gizarteko sektore ahulenen asmoa. Asmo horien artean zegoen lan-harreman demokratikoen esparrua eratzea, "*de facto*" lortutakoa "*de jure*" ere gauzatzea, alegia. Baina momentu hartan ez zegoen kondizio politiko egokirik politika keynesarrik aplikatzeko (enplegu osoa, ongizate-estatua, inbertsio publikoa...), eta justu alderantzizkoa egin zen: ikuspegi liberalen arabera berrantolatatu zen lan-merkatua.

1977ko apirilean legezatu zituzten sindikatuak. Urte hartako urrian, berriz, Moncloako Itunak sinatu zituzten alderdi politikoeak. Alderdiek izenpetu ez zituzten arren, Itunen alde egin zuten haiek ere, gogotik egin ere.

Gai politikoak, sozialak eta ekonomikoak jorratzen zituzten Moncloako Itunen edukiek. Lehenbiziko aldiz, adostasun zabala zegoen -bai boterearen bai oposizioaren aldetik- honako honetaz: hazkunde ekonomikoaren eta enpresen irabazien menpe jarri behar ziren gainerako faktore guztiak (enplegua, soldatak, lan-kondizioak...). Hala, inflazioaz behetik igo ziren soldatak; aurreikusitako KPIren arabera izaten ziren soldata-igoerak; produktibitate-hazkundeak enpresen irabazietara bideratzen ziren; plantilla-erregulazioak egiteko bidea zabalik utzi zen eta langileen % 5 kalera-tzeko baimena eman soldata-igoera % 20,5etik gorakoa zen enpresetan; behin-behineko kontratazioak egiteko bidea ere zabalik utzi zen, baita krisiak jotako enpresetan langileak kaleratzekoa ere.

Moncloako Itunak, bada, bi ereduren arteko zubia izan ziren, frankismotik eta ordura arteko kapital-metaketa ereditik ekonomia-aren arautze liberalerako pasabidea.

1978ko Konstituzioak garrantzi estrategikoa eman zien sindikatu-iei: egituratze politikoaren elementutzat jo ziren (Espainiako Konstituzioaren 28. artikulua) eta ekonomia arautzeko bitartekari-tzat (E. K.ren 37. art.).

Merkatu-ekonomia Konstituzioaren 38. artikulua bedekatu zuen: "Enpresa-askatasuna aintzatesten da, merkatu-ekonomia-aren baitan betiere"... Horrez gain, dio Konstituzioak, "Botere publikoek bermatu eta babestu egin behar dituzte enpresa-askatasuna eta produktibitatea, ekonomia-aren premia orokorren arabera, eta, hala balegokio, planifikazioaren arabera". Beraz, Estatuak merkatu-ekonomia-ian fedea izateaz gain, hura babesteko obligazioa ere badu.

Gaur egungo garaietara itzuliz, Espainiako Konstituzioaren 25. urteurrena ospatu berria den honetara, ez da harrizkeoa CEOEko presidentek (besteak beste) su eta gar agertu izana Konstituzioaren alde. Estatuaren batasuna bermatzen omen du, estatu demokrati-koa babesten, askatasuna... Egia da, bai, askatasuna bermatzen

---

---

duela Konstituzioak, baina ez herritarrena edo herriena, baizik eta merkatuarena.

Bat zetozen garai hartan Estatuaren erantzunak sindikatuen proposamenekin honako honetan: lanaldia murriztu beharra zegoen enplegua banatzeko eta sortzeko. Hortaz, enplegu egonkorra oinarri zuen lan-kontrataziorako esparru juridikoa behar zen.

Lanaldia murrizteko politikak (lanordu gutxiago, erretiratzeko adina aurreratzea, opor-egun gehiago...) desorekak eragin zituzten ekonomian eta, noski, ez zetozen bat merkatu-ekonomiaren irizpideekin, garestitu egiten baitzituzten lan-kostuak, lehiakortasuna galarazten, enpresaburuei lanpostu berriak sortzeko asmoak hozten eta, azkenik, defizit publikoa handitzen. Izan ere, erretiro aurreratuak finantzatu beharra zegoen, baita gora eta gora ari zen lan-ezake eragindako langabezia-prestazioak ordaindu beharra ere.

1977ko amaiera aldera izan zuen inflexio-unea egoerak: 43/77 Errege Dekretua plazaratu zuen gobernuak, behin-behineko kontratazioari ateak zabaltzen zizkiona alegia. Handik aurrera, Langileen Estatutua indarrean sartu zen arte, kontratazio ez behin betikoa arautzeko dozenaka ebazpen gehiago argitaratu ziren. Arau haiek guztiek ez zuten hautsi kontratu finkoak behin-behinekoaren aldean zuen nagusitasuna, baina desegin egin zuen 1976an langileen indarrak lortutako printzipio bat: enplegu egonkorrena.

Hala, bada, bide guztiz kontrajarrietatik jo zuten enpresaburuek eta sindikatuek. Patronalaren estrategia zen produkzioa deszentralizatzea eta plantillen egitura aldatzea. Bi milioi lanpostutik gora desagertu ziren (iturria: Smac, lan-magistraturak); azpikontratazioa nabarmen hedatu zen (Langileen Estatutuaren 42. art.); ezkutuko ekonomia izugarri hazi zen, hori baitzen lan-kostuak merkatzeko modu errazena, eta plantillen egitura enplegu-erregulazio, krisi-espeditente, irazpen eta birmoldaketen bidez doitu zen.

Patronalaren estrategia horrek lan-merkatuaren estratifikazioa zuen helburu: batetik, lanpostu finkoak zituzten langileak zeuden, enplegu-egonkortasuna juridikoki bermatua zutenak, sindikatuen babesarekin, lan-kondizioak negoziatzeko ahalmenarekin; bestetik, berriz, enpresarekin behin-behineko lotura zuten langileak zeuden, lan-kondizioak negoziatzeko lotura juridikorik gabeak. Lan-mota

irregularren bidean lehenbiziko urratsa emana zegoen. Patronalaren estrategia horrek bigarren sektore horietara bideratu zuen lan-eskaintza, hots, enpresarekin lotura juridiko sendorik ez zuten langileengana.

Patronalak egina zuen bere apustua. Orduan aldatu zen politika ekonomikoaren noranzkoa: enplegu-politikak langabezia kudeatzeko politika bihurtu ziren. Hona hemen helburua: zegoen enplegua banatzea, lan-merkatua malgutuz eta behin-behinekotuz.

Moncloako Itunak (1977) eta 1984a bitartean (urte horretan aldatu zen, partzialki, 1980ko Langileen Estatutua) malgutze-estrategiaren arabera berrantolatu zen lan-merkatua. Sasoi hartan plazaratu ziren legeek kristala bezain garden bihurtzen zuten eskulana, eta ez zieten aukerarik ematen langileei merkatu-ekonomiari mugak jartzeko (lehiakortasuna, teknologia berriak, inflazioa, interes-tasak, moneta bakarra...). Erabat aldatu zen egoera: enplegua zen ordura arte egitate zentrala; aurrerantzean, behin-behineko enplegua izatea zen normalena.

Era askotako lege-arauak egin ziren: kontratazioari buruzkoak, enplegua sustatzekoak, enplegua sortzeagatik diru-laguntzak ematen zituzten dekretu bereziak, soldatak apaltzekoak, lan-kostuak jaisteagatik enpresaburuei pizgarriak ematen zizkienak, industria-birmoldaketa zorrotza, lehiakorrigo izateko eta kontratazioa malgutzeko pizgarriak... Arau horien guztien helburua berbera zen: lan-merkatua malgutzea, zurrunegia baitzen enpresaburuen iritziz.

1980ko Langileen Estatutuak oinarrizko arau bakar batean (legeizaera zuen) bildu zuen lan-legedia eta zuzenbidea. Bi emaitza aipagarri utzi zituen Langileen Estatutuak: lan-merkatua malgutzeko prozesuari bidea zabaldu zion, Lege Organiko baten bidez arautu baitzuen behin-behineko kontratazioa (gogoan izan ordura artekoak dekretu-legeak erabili zirela enplegua sustatzeko politika gisara), batetik; bestetik, gaur egungo lan-harremanen oinarriak finkatu zituen (Estatuaren babesik gabeko negoziazio kolektiboa, irazpe-naren legezztatzea eta gerentziaren sendotzea lan-prozesuan).

1980ko urriko Enpleguaren Oinarrizko Legeak, berriz, murriztu egin zituen langabezia-prestazioak (kotizatutako denboraren araberrako prestazioak jarri zituen). Langabezia-prestazioak kobratzen

---

---

zituzten langileen portzentajea % 46,4tik (1980) % 26,30era (1984) jaitsi zen, nahiz eta langabeen kopurua ia bikoiztu egin zen epe horretan (1.482.100etik 2.768.500era).

## II.

### 1982KO ENPLEGUARI BURUZKO AKORDIO NAZIONALETIK 1992KO DEKRETUTZARRERA

Hurrengo urteetan, hitzarmen hauek izenpetu ziren: Enpleguari buruzko Akordio Nazionala (ANE) 1982an (sindikatu guztiek sinatu zuten), Konfederazio arteko Ituna (AI, 1983) eta Itun Ekonomiko eta Soziala (IES, 1984). Azken horrek bi urteko balio-epea zuen, eta CCOOk ez zuen sinatu. Behin-behinekotasun faktore garrantzitsua ekarri zuen Itun Ekonomiko eta Sozialak: irazpen kolektiborako aukera 25 langile baino gutxiagoko enpresetan (horregatik ez zuen izenpetu CCOOk Ituna).

Behin-behineko kontratazioak zeuzkan lege-mugak handik aurrerako arauak hautsi zituzten: Langileen Estatutuaren erreformak (1984), behin-behineko kontratazio-mota ugari eskaintzen zuten hainbat dekretuk (gogora ditzagun enplegua sustatzeko kontratu famatu haiek, hiru urterakoak, sei hilabetez behin berritzen zirenak) eta abarrek. Egonkortasuna arautzen zuen printzipioa bertan behera geratu zen eta, aurrerantzean, behin-behinekotasuna hedatu eta nagusitu zen. Halaber, hautsi egin zen lan-kontratuen kausalitatea (sindikatuaren asko aipatzen zuten kontu hori), hau da, lanpostu finko eta egonkorretarako behin-behineko kontratuak egiten hasi ziren.

1985ean, pentsio-sistema publikoa eta solidarioa hankaz gora jartzeko oinarriak finkatu zituen Pentsio Sistema Publikoak Arrazionalizatzeko 26/85 Legeak. Izan ere, pentsioa kobratzeko baldintza are zorrotzagoak ezarri zituen Legeak eta, praktikan, eskubide-galera ekarri zien langileei (erosteko ahalmenari dagokionez, % 12,5eko murrizketa).

Handik bi urtera argitaratu zen 8/87 Legea, Pentsio Fondoei buruzkoa. Atea zabalik utzi zien lege hark pentsioen pribatizazioari eta haien kudeaketa pribatuari.

1988an, Gazteentzako Enplegu Plana (PEJ) asmatu zuen PSOEko gobernuak. Lege hartaz baliatu zen patronala -gazteen langabezia-tasa handia aitzakia hartuta- lan-merkatuan ezegonkortasuna hedatzeko: merkatuko 'legezko' baldintzen azpitik kontrata zitezkeen gazteak. Horrek, zioten, txandatze-mugimendua omen zekarren lan-merkatura (kontratu finkodun langile helduen ordezt, behin-behineko kontratudun gazteak, alegia) eta okupazio-tasa handitu egiten omen zuen. 1988ko abenduaren 14ko greba orokorrrak zapuztu zituen asmo horiek. 1994ko erreformak, berriz, ikasketa-kontratuak, praktiketako kontratuak eta abar arautu zituen.

Langileen Estatutuaren sorreratik haren erreformara dagoen bideak ederki erakusten du lan-esparruari edo lan-harremanei ematen zaien tratamendu juridiko berezia: salbuespeneko lege-arauak egiten ziren, batetik, eta, bestetik, salbuespen horiek arautu ('normaldu') egiten ziren, hots, enpresaburuen premietara egokitzen zen legedia.

Irabaziei buruzko 'burdinazko legea' ezartzen zuen enpresetako gerentziak. Horrek, jakina, itxi egiten zion bidea lan-alorreko harreman desorekatua demokratizatzeari. Gerentziaren agintea estrategiko bihurtu zen, eta horrek lan-harremanen berregituraketa (kutsu autoritario nabarmenekoa) ekarri zuen. Produktibitatea beste zehinahi irizpideren gaineratik zegoen. Langileen kapitalarekiko mende-kotasunaren arabera arautzen ziren lantegietako plantillak eta haien egituraketa -sinplifikatu egin zen plantillak murrizteko mekanismoak (LEaren 51. art.)-, beste irazpen-sistema batzuk asmatu ziren -irazpen objektiboa, LEaren 54. art.), sinplifikatu egin ziren krisi-espedienteak eta murriztu egin zen sindikatuek espediente horiekiko zuten kontrola.

Langabeziari buruzko zenbait arauk -Enpleguari buruzko Oinarrizko Legea aldatzen zuen '1992ko dekretutzarra' deritzonak, bereziki- eman zioten akabera 1977ko udazkenean abiatutako lan-merkatuaren erreformari.

---

### III.

#### 1994 ETA 1997KO LAN-ERREFORMAK: LAN-MERKATUA GERO ETA MALGUAGOA

##### *1994ko lan-erreforma*

Arau-aldaketak ekarri zituen 94ko erreformak kontratazioan, lan-kondizioetan, lan-kontratuen etete eta amaitzean, negoziozko kolektiboaren egituran eta langabeziagatiko babesean. Laburbilduz, sistematiko bihurtu zen lan-harremanen malgutasuna.

Enpresetako gerentziaren lana errege absolutisten agintearen tankerakoa zen, malgutasunaren pipiak ez baitzuen utzi hondatu gabeko ezertxo ere lan-harremanei zegokienez: lan-merkatutako sarrera (behin-behineko kontratu-motak), lan-kondizio guztiak (lanaldia, eginkizunak, ordutegiak, lan-sistemak, txandakako lana...) eta lan-merkatutik irteeta (iraizpen pluralak, iraizpen kolektiboak...).

1980ko Langileen Estatutuaren testuaren erdia aldatu zuen erreforma hark.

1994ko Lan Erreforma horretan, aipatu beharrekoa da 14/94 Legea, Aldi Baterako laneko Enpresei (ABLE) buruzkoa.

ABLEak arautzen dituen 14/94 Legeak erabateko etena ekarri zuen legalitatearen formarekin. Araua aldatu eta egoerara egokitu zen: behin-behinekotasuna lege bihurtu zen. Estatua ez zen jada bitartekari lan-merkatuaren arauketan, eta 'ezkutuko eskuak, merkatuak' berrantolatu zituen lan-merkatuko harreman sozialak, eskaintza eta eskariaren legearen arabera. Horrenbestez, merkatua arautzeko edo mugatzeko arau oro 'ekonomiaren garapena oztopatzen duen' faktore bihurtu zen.

ABLEak -eta horiekin batera aplikatutako araudi berria- garen-eredu jakin baten isla dira. Lan-harreman ahulak eskatzen ditu eredu horrek. Era askotakoa da ahulezia hori: lan-kontratu ereduarena (ikasketa-kontratuak, praktiketakoa, lanaldi partzialekoa, azpikontratazioa, enpresa batek besteari langileak uztea...), edo lan-merkatuan aritzeko moduarena (langile immigranteen egoera,

ezkutuko ekonomia, gezurrezko autonomoak...)). Sektore horien egoera hain da ahula, ezen arautzea aipatze hutsak ere barregura ematen duen.

Dударик gabe, oso larria da langile horien lege-ahulezia: ez daukate langile finkoen tratamendu juridiko berbera; politikari dago-kionez, 'ikusezinak' dira, ez baitaukate presio-talde gisara antolatze-ko modurik; gizarteko zenbait balio atzerakoi bereganatzen dituzte -indibidualismoa (daukaten horri eusten diote), elkartasunik eza (ez dira fidatzen sindikatuez eta ezer erreibindikatzen duen inortaz, daukaten apurra galtzeko beldurrez), irizpide kritikorik eza...-. Laburbilduz, 'eskerrak hau behintzat badaukagun, eta eutsi diezaiozun' bihurtzen da egoera horretan dauden langile askoren filosofia.

***1997ko lan-erreforma:  
zabor-kontratuetatik zabor-iraizpenera***

1997ko apirilaren 28an lan-merkatua aldatzeko CEOE-CEPYMEk, UGTK eta CCOOK izenpetu zuten Itunak beste zaplazteko bat eman zien eskubide laboralei eta sozialei. Halaber, lan-merkatua malgutu eta desarautzeko politikaren jarraipena izan zen, merkatu-ekonomiako sistemaren ezinbesteko osagaia.

Itunaren hitzaurrean dago, sinatzaile guztiek adostuta, hura justifikatzeko arrazoibidea: "ezinbestekoa da enplegua sortzeko... Europako Batasuneko kide izateak hainbat desafio ekarri dio Espainiari... malgutasun handiagoa ekarriko duen lan-harreman esparrua behar dugu... horrek guztiak lehiakortasuna eta enpresen funtzionamendua hobetuko du...". Justifikazio horrek beste batzuk dakarzkigu gogora; besteak beste, 1977ko Moncloako Itunei eman zitzaiena (orduan ere enplegua eta laneko egonkortasuna agindu zuten langileen soldatak murriztearen truke). 1997ko Itunak ere gauza bera agintzen zuen: enplegu egonkor gehiago irazpen objektiboak onartzearen truke (LEaren 52. c. art.).

Baina aginduak agindu, zaila zen egoeraren gordintasuna ezkutatzea: izugarri hazi ziren behin-behinekotasuna, desberdintasunak, langabezia eta bazterketa soziala. Behin-behinekotasunari dagokionez (% 35ekoa, 1997an), 1980an existitu ere ez zen egiten

---



---

kasik; langabezia, berriz, % 6koa zen 1980an (1997an, % 22koa); irazpen- kostua 60 eguneko soldatakoa zen, urteko, 1980a aurretik (1997an, 20 eguneko soldatakoa, urteko, batez beste; aldi baterako langileek, gainera, ez dute jasotzen ordainsaririk irazpenagatik, enplegu-sustapenekoek izan ezik).

Sindikatu nagusiak, berriz, nahiko otzanduak eta instituzionalizatuak zeuden ordurako. Horrenbestez, onartu egin zuten -praktikan, bederen- ekonomiak politikarekiko duen nagusitasuna. Onartu egin zuten, halaber, botere ekonomikoaren logika (hazkundera, produktibitatea, lehiakortasuna, European egotearen desafioa) eta arrazoi 'posibilistak' eta kontserbadoreak jarri zituzten aitzakiaz Ituna sinatzeko.

1994ko lan-erreforma sinatu ez zuten arren, sindikatu nagusiek legitimatu egin zuten, ez baitzuten deusik aldatu ia. Are larriagoa: okerrera egin zuten zenbait gauzatan (irazpen objektiboaren kostujaitziera behin betiko kontratu berrietan, adibidez, edo LEaren 52. c artikulua aldaketa.

Ituna sinatu zuten sindikatuen etsipen-jarrerara hark honako hau adierazten zuen: 'normalizat' onartzen zituztela lan-merkatua desarautzea, langabezia, bazterketa soziala... Aipatu fenomenoak, ordea, sistema sozial bidegabe eta ez-solidario honen emaitza baino ez dira, baita sistemaren porrotaren adibide garbiak ere, ez baita gai arazo horiek konpontzeko. Izan ere, berezkoak ditu sistemak aipatu arazoak, dirua eta etekin pribatu ahalik eta handiena baititu helburu bakarrak, horren ordainetan milioika lagun akabatzen baditu ere miseriak eta goseak, milioika lagun gizartetik bazterrerera gertzen badira ere.

Enplegu Egonkortasunerako Itunean, Langileen Estatutuaren 52.c artikulua aldatzea adostu zen. Aldaketa hari esker, are errazagoa zitzaien enpresaburuei langileak kaleratzea irazpen objektibotetan, "merkatuaren lehia-exijentziek, edo eskariak, hala eskatzen badute, baliabideak hobeto antolatu eta enpresaren funtzionamendu egokia eragozten duten oztopoak gainditu ahal izateko...". Laburbilduz, errazagoa izango zela aurrerantzean langileak kaleratzea, kendu egin baitzitzaizkien enpresaburuei horretarako zituzten lege-trabak, 1994ko Erreformen idatziak. Beraz, langileak azkarago eta errazago kanporatzeko moduan zegoen patronala; orain-

goan, ordea, Europako Batasunaren izenean eta Kapitalarenean (euroa, pezeta, dolarra... deiturak ez dio axola).

Kontratu-modalitateen arauketan eginiko aldaketei dagokienez (dietenak baino gutxiago, betiere), azpimarratzekoa da honako hau: ez zutela aurrekoek bezalako tratua jasoko aurrerantzean egingo ziren behin betiko kontratuen sinatzaileek. Izan ere, kalte-ordain edo indemnizazio txikiagoa jasoko zuten bidegabeko irazpenagatik. Langileak are gehiago mailakatzea zekarren horrek, edo ordura arteko ikasketa-kontratuen izena aldatzea (Trebakuntza Kontratuak zuten deitura berria). Deiturak deitura, kontratu berrien sinatzaileek ez zuten langabezia-prestazioa kobratzeko eskubiderik (aparteko mesede gisara, bajak kobratzeko eskubidea eman zitzaizen). Beraz, zabor-kontratuak, behin-behinekoak izaten jarraitzen zuten.

Aldi Baterako Laneko Enpresen aipamen laburrik ere egin zuen Itunak. Batere hobekuntzarik ez zen egin alor horretan; hori bai, enpresen, sindikatuen eta gobernuaren arteko batzorde bat sortu zuten ABLEen funtzionamendua, estatistikak eta abar aztertzeko, eta hainbat gauza agindu zituzten. Alabaina, ABLEek ordura arte bezala jarraitu zuten, langileen legez kanpoko kontratazioa bedeinatzen.

*PP-ren enplegu-plana:  
enplegua denontzat, baina behin-behinekoa*

1997ko Erreforma are sakonagoa egitea, horixe zuen ardatz nagusi Planak, hau da, artean araututa geratzen zena desarautzea, eskulana (langilea) eskariaren eta eskaintzaren legearen arabera jardun dadin: merkatuak lana eskaintzen duenean lan egin, merkatuak agintzen duen kondizioetan, hark behar duen lekuan eta hark agintzen duen prezioan. Horrela egitekotan, herritar guztiei ziurtatzen zitzaizen enplegua.

1997ko Erreformaren printzipio edo fede-ekintza bera zuen oinarri enplegu-sorrerak: "Enplegua sortzeko, ezinbestekoa da ekonomia haztea". Garrantzi erabatekoa ematen zitzaion, bestalde, Erreforma hartan finkatutako elkarrizketa sozialari.

Hona hemen Planaren alderdi nagusiak: elkarrizketa sozialari eustea eta are sakonagoa bihurtzea, 1997ko Konfederazio arteko

---

Itunen eta autonomia-erkidegoetako elkarrizketa sozialeko ereduaren arabera; enplegu-politika aktiboak, pasiboaren ordez (prestazioak eta subsidioak); lanaldi partzialeko kontratuak bultzatzea.

Aipatu filosofia lau alorretan garatu zen:

1.- Lanbideratzeko gaitasuna hobetzea. Langabe guztien kontrol zorrotza egin behar zen horretarako, prestakuntza-ikastaroen bidez eta prestazioak gutxituz edo kenduz (enplegu-politika pasiboak, alegia). Helburua: langabea lana bilatzera behartzea edo motibatzea, langabezia-prestazioa jasotzen segitzeko batere gogorik ez izatea.

Ia bilioi-erdi pezeta eman zuen Gobernuak enplegu-politika aktiborako. Erabateko aldaketa, beraz, helburu horiek lortzearen bidean betiere:

2.- Enpresa-espirtua sortzea

3.- Langileen eta enpresen egokitze-ahalmena sustatzea.

4.- Aukera-berdintasun politika sendotzea.

Gobernuaren kezka nagusia zen sindikatuak konbentzitzea, enplegu-prestasuna deritzona onar zezaten. Ez zuen lantegi zaila Gobernuak; izan ere, 1977an Moncloako Itunak izenpetu zituztenean, Espainiako sindikatu nagusiek onartua zuten enpresaren emaitzak (irabaziak) hobetzea ezinbesteko baldintza zela enplegua sortzeko langileen eskubideak bermatzeko.

Horrenbestez, langabezia masibo eta iraunkorrak sortutako bazterketa soziala ohiz kanpoko fenomenotzat jo zuten sindikatuek, demokrazia arriskuan jar zezakeen arazotzat. Esan beharrik ez sindikatuak erabat instituzionalizatuta daudela (langabeziaren kudeaketan parte hartzen dute, FORCEMen...), eta, badutela, beraz, zer galdua. Hala, bada, ez dute ikusten bazterketa soziala gatazka argitaratzeko bide gisara, logika hori eteteko aukeratzen. Sindikatu nagusien iritziz, merkatu sendoagoa, moneta bakarra, lehiakortasun zorrotzagoa... behar dira enplegu osoa sortzeko. Sindikatuek PPrene enplegu-planari egin zioten kritika oso ahula izan zen (diru gehiago eskatu zuten langabezia-prestazioetarako, inbertsio publiko handiagoak lanpostuak sortzeko... eta apenas ezer gehiago).

Ilegaltasunaren erresuma jaun eta jabe egin zen, gure gizartearen egitura moralaren erakusgarri.

#### IV. 39/99 LEGETIK 2002KO DEKRETUTZARRERA.

##### *39/99 legea, lana eta familia elkarrekin uztartzeari buruzkoa*

Gobernuak eta sindikatu nagusiek ziotenez, 39/99 Legeak (1999ko azaroaren 6ko BOE) hobetu egiten zuen emakumezkoen egoera, baita gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasunari laguntzen ere, aukera ematen baitzuen etxetik kanpoko lana eta etxe barruko eginkizunak (senitartekoak zaintzea barne) elkarrekin uztartzeko.

Legearen deitura erakargarriaz landa, ordea, betiko asmoa sumatzen zen: emakumeak izatea familiaren zaindari.

Honako alderdi hauei eragin zien Legeak: haurdun zeuden emakumeak irazpenetik babesten zituen, emakume langileak arriskuetatik babesten zituen haurdunaldiak, eta ordaindutako baimenak ematen zizkien etxean senitartekoak zaindu behar dituztenei.

Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko diferentziak gainditzeko hainbat aldaketa eta neurri aipatzen zituen Legeak. Denborak erakutsi zuen, ordea, marketina gogotik eta gainerakoan ezer gutxi eskaintzen zuela Legeak.

Zoritxarrez, emakumezkoek gizonekiko duten mendekotasunari eustea baino ez zuen ekarri Legeak. Nabarmena den arren gizonezkoek eta emakumezkoek etxeko lanetan eta senitartekoak zaintzen ematen duten denbora-diferentzia, 39/99 Legeak ez zuen batere sentsibilitate sozialik erakutsi arazo hori dela eta. Hutsuneak ere ugari zituen Legeak -nahita utzitakoak, gure ustez-. Azkenik, ez du inondik ere zalantzan jartzen emakumezkoen gizonekiko mendekotasuna, bere horretan eusten dio harreman sozialen ereduari.

Gure gizarte honetan, etxeko lanak eta senitartekoak zaintzea ez dira lantzat jotzen (Biztanleria Aktiboaren Inkestak 'ez-aktibo' deitura ematen die etxekoandreei), ezta jarduera ekonomikotzat ere. Hala eta guztiz ere, biztanleria helduak urte osoan egiten duen lanaren bi heren ordaindu gabeko lana izaten da. Etxeko lanak eta senitartekoak zaintzea izaten da ordaindu gabeko lan horren % 80, eta emakumezkoek egiten dute batik bat.

---

Paradoxikoa dirudien arren, lana eta familia elkarrekin uztartzea oso zaila zaie emakume espainiarrei, nahiz eta gehienek 'ez duten lanik egiten', Biztanleria Aktiboaren Inkestak dioenez.

1995eko Laneko Arriskuen Prebentziorako Legeak (26. art.) agintzen zuen kontrolatu egin behar zirela laneko jatorria duten sortzetiko kalteak, eta salbuespen izan behar zutela arriskudun lanpostuak. Lanpostu alternatiboak ere sortu behar zirela zioen Legeak. Kontuak, ordea, bestelakoak dira lantokietan.

Arrisku gabeko oso lanpostu alternatibo gutxi sortu dira haurdun dauden emakumeentzat. Nola sortuko, baina, lan- eta enplegukondizioen behin-behinekotasuna nagusi bada, merkatu globalizatuak eskatzen duen lan-malgutasuna erabatekoa bada, enpresaburuek ez badituzte betetzen laneko osasun-legeak betetzen...?

Emakumezkoak nagusi diren sektoreetan (garbiketa, oihalgintza, osasuna...) eguneroko ogia dira abortuak, garaiz aurreko erditzeak, sortzetiko gaitzak... Enpresa txikietan, berriz, are zailagoa da lanpostu alternatibo horiek sortzea.

1995eko Laneko Arriskuen Prebentziorako Legeak ez bezala, 39/99 Legeak honakoa dio (26, 2 art.): INSSko medikuek eta mutua patronaletakoek egiaztatu behar dute badela arriskurik emakume haurdunarentzat, Osasun Zerbitzu Nazionaleko medikuak aurrez txostena egin eta gero. Hartara, osasun-sistema publikoaren irizpideak baztertu eta INSSren eta mutua patronalen esku uzten da azken erabakia.

39/99 Legearen beste alderdi negatibo bat da ez duela diskriminazio positiboa erabiltzen gizonetzkoak bultzatzeko etxeko lanak egitera eta senitartekoak zaintzera. Garbi dago, izan ere, desberdintasun-egoeran daudenak berdintzat tratatuz gero desberdintasuna areagotzen dela.

Bistakoa da, bestalde, oso eremu urrian erabiliko dela Lege hori: horretaz baliatuko diren emakumeek ongi araututako sektoreetan lan egiten dute, eta soldata nahiko onak dituzte (neurrietako batzuek soldata-murrizketa dakarte). Gogoan izan emakumezkoak direla lanaldi partzialean ari diren langile gehien-gehienak. Ez ahan-tzi, bestalde, emakumezkoen aktibitate-tasa gizonetzkoenaren

erdia dela, edo langabezian dauden emakumezkoen tasa gizonezkoena halako bi dela.

Gainera, Legeak dakarren araudi-aldaketa egoera berezi batzuetan bakarrik aplikatuko litzateke (erditze anizkunak, adopzioak...); gainerakoetan, arazoak dituzten senitartekoak zaintzeko bakarrik murriztuko litzateke lanaldia (soldatarekin batera, jakina), edo amatasun-baimenetan, aitari uzteko baimen horren zati bat.

Lanaldia (eta, ondorioz, soldata) murrizteko eskubideaz baliatzea erabakiz gero, soldata txikiena duen bikotekideak egin behar du. Gehienetan, ordea, emakumearena izaten da soldata txikiena.

Horrenbestez, emakumezkoen mendekotasun ekonomikoa bultzatzen da, haien erosteko ahalmena gutxitzea, eta lehendik ere nahiko eskasak dituzten lanpostu promozio-aukerak alde batera uztea.

Azkenik, Legeak ez ditu aintzat hartzen familia-mota berriak (sexu bereko edo desberdinetako lagunen arteko izatezko bikoteak, adibidez). Beraz, nabarmen uzten ditu bazterrera Legeak egoera horretan daudenak.

Pertsonen arteko eta familia barruko harremanen alorra hain garrantzitsua izaki, aldatu beharra dago orain arteko jarrerak, etxeko lanak eta senitartekoen zaintza emakumeen esku uzten dituztenak alegia. Gizonezkoek jabetu beharra daukate etxeko lanak eta senitartekoak zaintzea ez dela tarteka 'laguntzea', baizik eta bien erantzukizuna dela, gizonezkoarena eta emakumezkoarena. Beraz, elkartasuna eta elkarri laguntzea behar dute izan etxeko lanak banatzeko irizpide, ez alde batek besteari einkizun jakin batzuk inposatzea.

Lan-harremanei dagokienez, baldintza hauek bete beharko lirateke alor horretan hobekuntzak gauzatzeko eta berdintasunaren bidean aurrera egiteko: negoziazio kolektiboaren aukera guztiak egokiro erabiltzea, diskriminazio positiboko klausulak bultzatuz, enpresetan laneko osasunaren prebentzioa bete eta garatzeko exijituz, emakumezkoen kontratazioa blindatuz eta babes soziala sendotzeko eskatuz.

Hortaz, aurrera egingo bada alor horretan (etxeko lanak eta senitartekoen zaintza gizonezko eta emakumezkoen artean banatzea),

---

---

hau da, enplegua ez ezik lana ere banatuko bada, gastu soziala handitu behar da. Eta, noski, bai gizon-emakume bakoitzak bai gizarte osoak aldatu behar ditu orain arteko irizpideak. Gastu sozialari dagokionez, ez da erraza izango hori handitzea, merkatua jaun eta jabe dugun gizarte globalizatu honetan.

*2002ko apirileko dekretuzarretik 2002ko abenduko dekretuzarrera eta ekainaren 20ko greba orokorrera*

Europako lehendakaritza Espainiari (PPko gobernu) zegokion seihilekoan aurkeztu zen langabezia-prestazioei eta Oinarritzko Enplegu Legeari buruzko legediaren erreforma. Hauek zituen alderdi aipagarrienak erreformak: nekazaritzako erregimen berezitarako (Andaluziako eta Extremadurako PER delakoa...) subsidioak aldatzea (kentzeko asmoarekin betiere), tramitazio-soldatak kentzea bidegabeko irazpen-kasuetan, 'enplegu egokia' deritzona aldatzea (langilearen trebakuntza eta kategoria profesionala alde batera utzi eta edozein lan hartzera behartzea), langabezia-prestazioak murriztea aldizkako lan-kontratu finkoak dituzten langileei eta sorterrira itzultitako emigranteei, langabezia-kotizazioak ez ordaintzea lanbideratze-kontratuak dituztenei...

PPk proposatutako erreforma haren (5/2002 Lege Dekretua deitu zitzaion gerora) benetako helburua zen kapitalaren aldera errenta gehiago bideratzea eta enpresaburuei kostuak murriztea, hau da, eskulan merkea eta eskubiderik gabea eskura jartzea.

PPk Europako lehendakaritza izan zuen seihileko hartan, 2002ko ekainaren 20an, greba orokorra deitu zuten sindikatuek estatu espainiar osoan, seihilekoaren azken goi-bilera egunean hain justu, Kapitalaren eta Gerraren Europaren aurkako Kanpainaren barruan. Erabateko arrakasta izan zuen greba-deialdiak.

Globalizazioaren aurkako mugimenduek proposatu zuten greba orokorra ez mugatzea soldatapeko langileen eremura soilik, eta ahalik eta erantzun sozial, politiko eta laboral handiena ematea gobernuari. Herritarren erantzuna izatea zen greba-deitzaileen asmoa: langileena, ikasleena... Beraz, ez zen bakarrik Dekretuzarraren aurkako protesta, baizik eta Atzerritartasun Legearen aurkakoa, PPren Irakaskuntzako Kalitate Legearen aurka-

koa, askatasun publikoak murrizteko legeen kontrakoa, pribatizazio-politiken aurkakoa...

Handik hilabete gutxira -urte hartako udazkenean- gauzatu zen adostasuna sindikatuen, patronalaren eta gobernuen artean. Horrela sortu zen 2002ko abenduko Dekretutzarra.

Apirileko dekretuaren arau batzuk baliogabetu egiten zituen abendukoak, deigarrienak batez ere, baina beste batzuk (tramitazio-soldata kentzea irazpen-prozesuan dauden langileei, hots, irazpena merkatzeko moduetako bat) leundu baino ez zituen egin dekretu berriak.

Tramitazio-soldatak ez ordaintzeko, irazpen-gutunean adierazi behar du enpresaburuak bidegabea dela irazpena, eta dagokion indemnizazioa eskaini behar dio langileari. Hartara, tramite huts baten bitartez, ez dauka ordaindu beharrik enpresaburuak tramitazio-soldata, lehen legez egin beharra bazeukan ere. Argi dago, beraz, lortu zuela patronalak apirileko dekretutzarraren helburuetako bat. Ez nahi bezain modu biribilean, baina bai legez eta erraz egiteko moduan. Laburbilduz, gero eta merkeagoa zen langileak kaleratzea.

2002ko abenduko Dekretutzarrak leundu egin zuen, halaber, apirileko Dekretuaren beste alderdi polemikoenetako bat: Andaluziako eta Extremadurako nekazaritza-subsidioak (PER) kentzea. Leundu bai, baina ez kendu; izan ere, 2002ko abenduko Dekretuan ere ageri ziren PER planak eragindakoentzako neurri murriztaileak, batez ere gerora subsidio-hartzaile izan daitezkeenentzat. Hainbat mobilizazio egin zuten nekazarien sindikatuek (SOC-ek, batez ere) gobernuak eta sindikatu nagusiek 2002an adostu zuten Dekretutzarra salatzeke.

Pozik azaldu ziren UGT eta CCOO lortutako akordioagatik. Dekretutzarra sinatu zuten bi sindikatu horiek ziotenez, garaipen handia izan zen apirileko dekretutzarra aldatzea, eta eurek deitutako ekainaren 20ko grebari esker lortu omen zen hori (gogora dezagun ez zutela bi sindikatu horiek bakarrik deitu greba). Bestetik, abenduko ituna bikaina zela eta apirilekoaren alderdi txar guztiak kenduak zizkiotela sinetsarazi nahi izan zuten CCOO eta UGTk.

---



---

Gauzak, ordea, oso bestelakoak ziren. Egia da hasierako dekretuzarraren (apirilekoa) hainbat alderdi kezkarri erretiratu egin zirela abendukoak, baina, hala eta guztiz ere, bai gobernuak bai patronalak lortu egin zituzten bere helburuak, batzuk behintzat. Horren adibide garbi ditugu tramitazio-soldatei buruzko aldaketa, nekazaritzako enplegu-subsidioari buruzkoa..

## ONDORIO GISARA

Langabezia, behin-behinekotasuna, bazterketa soziala, langabezian luzaroan dauden langileak, lanaldi partzialeko kontratuarekin ari direnak, etxekoandreen lana (ez gizarteak ez lan-legediak lantzat onartzen ez duena)... horiek guztiak ez dira halabeharrez sortutako gaitzak, datu hotzak, estatistika hutsak: milioika gizon-ema-kumeren eguneroko egoera da, desegonkortasunean, arrisku-egoeretan eta, sarritan, bazterketa sozialean bizi direnen herritar asko eta askorena.

Kapitalismo globalizatuak eskatzen digu merkatuan jartzeko gure konfiantza, enplegua hark sortuko omen du-eta, langileen egoera hark hobetuko omen du-eta. Azken 25 urteotako lan-erreformek eta itun sozialek adierazten digutenez, gezur hutsak dira horiek. Izan ere, izugarri areagotu dira lan-merkatuaren malgutasuna eta behin-behinekotasuna, murriztu egin da Laneko Zuzenbideak langileak babesteko eta merkatuaren desorekak konpentsatzeko zeukan eginkizuna eta enpresaburuaren babesle bihurtu da, hazi egin dira langabezia eta behin-behinekotasuna...

Sindikatu nagusiek, berriz, bereganatu egin dute merkatuaren logika urte hauetan: hazkunde ekonomikoa behar dela diote, produktibitatea handitu beharra dagoela, inbertsioak behar direla enplegua sortzeko... hau da, patronalaren irizpide berberak erabiltzen dituzte. Sindikatu nagusiek diote Moneta Bakarreko Europa lorpen bat dela, eta ez dute arbuiaztzen injustizia, langabezia, behin-behinekotasuna eta bazterketa sortzen dituen sistema sozial hau.

1970eko hamarkadaren erdi aldera, aldaketa sakonak izan ziren. Teoria ekonomikoetan ere nabaritu ziren aldaketak: teoria liberalak nagusitu ziren, keynesarren kaltetan. Hori dela eta, enpresetako irabazia handitzeko lan-kostuak murriztea da baldintza nagusia. Bestalde, antolatutako langileriaren porrota ere eskatzen du ikuspegi liberalak. Testuinguru horretan gabiltza, bada.

Laneko Zuzenbidea desberdintasun sozialak konpentsatzeko faktorea zen, baina izugarri egin du atzera, merkatuaren indarrak aurrera egin duen abiadura berean gainera. European, azkeneko 25 urteotan, lan-harremanak liberalizatu egin dira, hots, atzeranzko modernizazio-prozesua izan dugu. Izan ere, XIX. mendeko garaie-

---

---

tara itzultzea proposatzen du liberalismoak, lan-harremanen malgutasuna, pribatizazioak eta lan-arauen desarautzea baino ez baitu proposatzen.

Lehiakortasuna eta moneta-egonkortasuna arautzat onartzen badira, epaia epaiketa aurretik ematea da hori: "Zuzeneko eta zeharkako soldatak dira sistemaren ezegonkortasun guztien eragile". Testuinguru horretan, ez da harritzekoa gauza harrigarria bihurtu izana kontratuaren alde ahulena babesten duen Laneko Zuzenbidea. Jende heldua, gaixoak eta langabeak babesteko Estatuak egin behar duen gastuak defizit publikoa sortzen du -diote liberalismoaren aldekoek-, eta horrela ez dago Moneta Bakarraren egonkortasun-ituna betetzerik.

Ordena ekonomiko honetan monetaren egonkortasuna da axola duena, horrek kapitalen joan-etorri libreari ateak zabaltzen baitizkio.

Desordena ez da behin-behinekotasuna, langabezia eta pobrezia; inflazioaren eta interes-tasen kontrolik eza omen dira desordena.

Modernizatu egin da Laneko Zuzenbidea; enpresaburuek "*de facto*" ezarritako egoeren ondoren, "*de jure*" aplikatzeko lasterketari ekin dio. Beste hitz batzuekin esanda, bere borondatez suizidatu beharra dauka Laneko Zuzenbideak lan-kontratuko alde ahulena-ren babesle gisara, eta enpresaburuen irabazien aldeko erruleta errusiarrean apustu egin.

Laneko Zuzenbidea, politika bezala, ordena burokratiko baten mende dago, merkatuaren legeen agindutara. Ordena horren barruan bakarrik omen dira posible askatasuna eta giza eskubideak.

